



47/2013 FORU DEKRETUA, abenduaren 17koa, zerga betebeharraren formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen duena.

(...)

72 ter artikulua. Plataforma operadoreek jarduera jakin batzuei buruz informatzeko betebeharrak.¹³¹

1. Artikulu honen 3. apartatuan xedatutakoaren arabera «informatzera behartuta dauden plataforma operadore» diren entitateek informazio jakin bat eman beharko diote Zerga Administrazioari «informatu beharreko saltzaileek» egindako «bidezko jardueren» «erreferentzia aldiari» buruz.

Erregelamendu honetan eta berau garatzeko araudian informazio betebeharrari buruz erabilitako terminoek 14/2023 Foru Dekretuaren eranskinean ematen zaien esanahia izango dute, araudiak besterik ezartzen duenean izan ezik, betiere, honako hauek xedatutakoa aintzat hartuta: Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa, 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena (V. eranskina), eta Agintari Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztuna, ELGaren eremuko plataforma digitalen bidez lortutako diru-sarreraren inguruko informazio truke automatikoari buruzkoa (13/2024 Foru Dekretua, otsailaren 27koa, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek komunikatutako informazioaren nahitaezko truke automatikoan egoki jarduteko aintzat hartu beharreko arauak eta prozedurak, eta zeinaren bidez aldatzen baita Zerga betebeharraren formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena, gure ordenamendura ekartzeko).

2. «Batasunetik kanpoko plataforma operadore kualifikatuak» ez daude informatzeko betebeharrari lotuta, haien «jarduera egoki» guztiak «jarduera egoki kualifikatuak» baitira, informazio truke automatikoaren xede direnak.

«Plataforma operadore salbuetsiek» frogatu badezakete, aplikatu beharreko legeriarekin bat etorritik, beren plataformaren enpresa eremuan ez dagoela «informatu beharreko saltzailerik», aitorpen negatiboa aurkeztu beharko dute urtero, Zerga Administrazioari «plataforma operadore salbuetsiak» direla jakinarazteko. Aitorpen eredia onetsiko duen foru aginduak eredia aurkezteko epea ezarriko du. Operadorea «plataforma operadore salbuetsizat» jotzen den urtea amaitu ondorengo urte naturalean aurkeztu beharko da eredia.

3. Informazioa ematera behartuta dauden plataforma operadoreak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena.

¹³¹ Artikulu hau otsailaren 27ko 3/2024 Foru Dekretuaren azken xedapenetako lehenaren hamabi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuan garatzen dira plataforma digitaletako operadoreek komunikatutako informazioaren nahitaezko truke automatikoan egoki jarduteko aintzat hartu beharreko arauak eta prozedurak, eta zeinaren bidez aldatzen baita Zerga betebeharraren formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena, gure ordenamendura ekartzeko. 3/2024 Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2024/03/01eko GAO).



«Plataforma operadore» guztiak egongo dira behartuta, salbuetsitakoak izan ezik, aitorpena Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztera, baldin eta, jarraian ezartzen diren irizpideak aplikatuta eta maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 46.Bi artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundia bada eskuduna lurraldea dela eta.

Zehazki, operadoreak Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu beharko du aitorpena, haren egoitza fiskala Espainiako lurraldean badago edo, egoitza hori ez Espainiako lurraldean ez estatu kide batean ez egonda ere, jarraian aipatzen diren konexio irizpideetako bat betetzen bada, eta informazioa ematera behartuta daudenen enpresa edo lanbide jarduerak egiaztatu eta ikertzeko eskumena Aldundi horri badagokio. Hona konexio irizpideak:

- i) Espainiako legeriaren arabera eratuta egotea.
- ii) Zuzendaritza lekua, helbide efektiboa barne, Espainiako lurraldean izatea.
- iii) Espainiako lurraldean establezimendu iraunkor bat edukitzea eta «Batasunetik kanpoko plataforma operadore kualifikatua» ez izatea.

Azken irizpide hori ez da aplikatuko baldin eta, «informatzera behartuta dagoen plataforma operadore» izatea zehazteko orduan, plataforma operadoreek ekonomia kolaboratiboaren eta noizbehinkako eta enkargupeko lan ekonomiaren esparruan saltzaile direnei buruz informatzeko ezarrita dauden ereduzko komunikazio araei jarraitu bazaie.

Apartatu honetan aipatzen diren operadoreek estatu kide edo «jurisdikzio elkartu» batean baino gehiagotan betetzen badute konexio irizpideetako bat, eta aitorpena aurkezteko Espainia hautatzen badute, aipatutako eranskinaren II. sekzioko A letrarekin bat etorri, Espainian aurrez erregistratuta erregelamenduz ezarritako terminoetan eta, hala badagokio, beste estatu kideari edo «jurisdikzio elkartuari» horren berri emanez, aitorpena Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu beharko dute, informazioa ematera behartuta daudenen enpresa edo lanbide jarduerak egiaztatu eta ikertzeko eskumena Aldundi horri badagokio.

4. Aitorpen informatiboak datu hauek jasoko ditu:

a) «Informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreari» dagokionez:

1.a. Entitatearen sozietate izena.

2.a. Identifikazio fiskaleko zenbakia eta, hala badagokio, Espainiako Zerga Administrazioak emandako banakako identifikazio zenbakia.

3.a. Plataformaren identifikazioa.

4.a. «Informazioa ematera behartutako plataforma operadoreak», aurreko 3. apartatuan aipatuak, estatu kide edo jurisdikzio elkartu batean baino gehiagotan betetzen duenean apartatu horretan adierazitako konexio irizpideetako bat, informatzeko obligazioa zein estatu kide edo «jurisdikzio elkartutan» beteko den



adieraziko da. Informazio obligazioa betetzeko aukeratutako estatu kidea edo «jurisdikzio elkartua» Espainia ez bada, operadoreak 4. apartatu honetako a) letran aurreikusitako datuekin bakarrik aurkeztuko du aitorten informatiboa, bere izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta aitortzen duen jurisdikzioan duen helbidea ere adierazita.

b) «Informatu beharreko saltzaile» bakoitzari dagokionez, baldin eta egin duen «jarduera egokia» ez bada ondasun higiezinaren errentamendua edo erabileraren aldi baterako lagapena:

1.a. 13/2024 Foru Dekretuan egoki jarduteko aurreikusten diren arau eta prozedurei jarraituz lortu behar diren datuak (13/2024 Foru Dekretua, otsailaren 27koa, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek komunikatutako informazioaren nahitaezko truke automatikoan egoki jarduteko aintzat hartu beharreko arauak eta prozedurak, eta zeinaren bidez aldatzen baita Zerga betebeharraren formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena, gure ordenamendura ekartzeko).

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, aitorpenean ez da jasoko 13/2024 Foru Dekretuaren 5. artikuluko 1.a) apartatuko 2. zenbakitik 5.era bitarte eta 1.b) apartatuko 2. zenbakitik 6.era bitarte adierazitako informazioa, baldin eta «saltzailea» nor den eta egoitza non duen zehazteko zuzeneko baieztapen bat erabiltzen bada estatu kide batek edo Europar Batasunak «saltzailearen» nortasuna eta egoitza zehazteko eskura jarritako identifikazio zerbitzu bat dela medio (13/2024 Foru Dekretua, otsailaren 27koa, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek komunikatutako informazioaren nahitaezko truke automatikoan egoki jarduteko aintzat hartu beharreko arauak eta prozedurak, eta zeinaren bidez aldatzen baita Zerga betebeharraren formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena, gure ordenamendura ekartzeko). Kasu horretan, «identifikazio zerbitzu» bat erabiltzen dela jakinaraziko da, bai eta «identifikazio zerbitzuaren identifikatzailea» zein den eta identifikatzaile hori zein estatu kidek eman duen adierazi ere.

2.a. «Finantza kontuaren identifikatzailea», baldin eta datu hori «informatzera behartuta dagoen plataforma operadorearen» eta «informatu beharreko saltzaileak» egoitza duen estatu kidearen edo «jurisdikzio elkartuaren» eskura badago eta «finantza kontuaren identifikatzailea» helburu horietarako erabili nahi ez duela jakinarazi ez badu.

3.a. Izena «Informatu beharreko saltzailearena» ez beste batena denean, «finantza kontuaren identifikatzaileaz» gainera, «kontraprestazioa» ordaintzen zaion finantza kontuaren titularraren izena, betiere «informatzera behartuta dagoen plataforma operadorearen» esku badago, bai eta «plataforma operadore» horrek



kontuaren titular horri buruz duen finantza identifikazioko beste edozein informazio ere.

4.a. «Informatu beharreko saltzaileak» 13/2024 Foru Dekretuaren 8. artikuluari jarraituta egoitza duen estatu kide edo jurisdikzio elkartu bakoitza (13/2024 Foru Dekretua, otsailaren 27koa, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek komunikatutako informazioaren nahitaezko truke automatikoan egoki jarduteko aintzat hartu beharreko arauak eta prozedurak, eta zeinaren bidez aldatzen baita Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena, gure ordenamendura ekartzeko).

5.a. «Erreferentzia aldiaren» hiruhileko bakoitzean ordaindutako «kontraprestazio» osoa, eta «jarduera egokien» kopurua, zeinarengatik «kontraprestazioa» ordaindu edo abonatu baita.

Moneta fiduziaro batean ordaindutako kontraprestazioaren informazioa ordaindu den monetan adierazi beharko da. Bestela, eurotan komunikatuko da, «informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak» uniformeki aplikatutako irizpide baten bidez bihurtuta edo baloratuta.

«Kontraprestazioari» eta bestelako zenbaterik buruzko informazioa ordaindu edo abonatu den «erreferentzia aldiko» hiruhilekoari dagokionez adieraziko da.

«Jarduera egokia» ondasun higiezin errentamendua edo erabileraren aldi baterako lagapena denean, «kontraprestazioa» eta «jarduera egokien» kopurua «ondasun higiezin komertzializatu» bakoitzari dagokionez adieraziko dira.

6.a. Erreferentzia aldiaren hiruhileko bakoitzean «informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak» atxikitako edo kobratutako komisio, fidantza, tarifa, tributu eta antzeko beste kopuru guztiak.

c) Ondasun higiezin errentamendua edo haien erabileraren aldi baterako lagapena dakarren «jarduera egoki» bat egin duen «informatu beharreko saltzaile» bakoitzari dagokionez, apartatu honetako b) letran aipatzen den informazioaz gain, honako hau komunikatu beharko du:

1.a. «Ondasun higiezin komertzializatu» bakoitzaren helbidea, egoki jarduteko prozeduren arabera zehaztua, eta hari dagokion finka zenbakia, katastro erreferentzia edo zenbaki finkoa edo, ezagutzen bada, kokatuta dagoen estatu kideko edo «jurisdikzio elkartuko» legeria nazionalaren arabera haren baliokidea dena.

2.a. Erreferentzia aldiaren «ondasun higiezin komertzializatu» bakoitza zenbat egunez alokatu edo laga den eta, jakinez gero, «ondasun higiezin komertzializatu» bakoitza zein motatakoa den.



Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ondasun higiezin baten errentamendua eta erabileraren aldi baterako lagapena hartuko dira «jarduera egokitzat».

5. «Informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak» legeria nazionalarekin bat etorritz frogatu badezake informazio hori informatzera behartuta dagoen beste plataforma operadore batek komunikatu duela, aitorpen informatiboa aurkeztu beharko du bertan 4. apartatuko a) letran aurreikusitako datuak soilik adierazita, bai berari buruzkoak, bai apartatu horretako b) eta c) letretan aurreikusitako informazioa jakinarazi duen plataforma operadoreari buruzkoak.

6. Aitorpena «saltzailea» «informatu beharreko saltzaile» gisa identifikatu eta hurrengo urte naturaleko urtarrilaren 1etik 31ra bitarteko epean aurkeztu beharko da, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak aitorpen eredia arautzeko onesten duen foru aginduan ezarriko den eran.

Dagokion aitorpen eredia onetsiko duen foru aginduak 3., 4. eta 5. apartatuetan aipatzen den informazioa jasoko du, baita informazio hori zehazteko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein datu ere.

7. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, hogeigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, 4. apartatuko letren zenbaki ordinal bakoitzean «informatzera behartuta dagoen plataforma operadore» eta «informatu beharreko saltzaile» bakoitzari buruz aipatzen diren informazioak datu multzo diferentek dira.

Aurrekoa gorabehera, 4. apartatuko b) letraren 1. zenbakiaren kasuan, datu multzotzat hartuko da. 13/2024 Foru Dekretuaren 5.1 artikuluko letrei dagozkien zenbaki ordinalak (13/2024 Foru Dekretua, otsailaren 27koa, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek komunikatutako informazioaren nahitaezko truke automatikoan egoki jarduteko aintzat hartu beharreko arauak eta prozedurak, eta zeinaren bidez aldatzen baita Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena, gure ordenamendura ekartzeko).